

Lorpenak eta prezioak

Euskaldunon Egunkaria, 1996-05-05: 3.

Sinplezia osoz aitortu behar dut Euskal Herria lortzen ari den eskubide guztien ezagutzak pozten nauela. Hain luzea izan da historian zehar gure askatasunaren laidozko ukamena, eta gero hain neketsua eta urria egin zaigu lehortean tantaka jasotako desesperoa, zaparradatxo ahulena ere egarri bizian hartzen dut. Eta sinesduna banaiz ere, mirari handiegia iruditzen zait batzuk amesten duten dilubioa. Amaigabeko bitarte honetan ahaztu ere egin zaigu, eta hau da bekatu, galdutakoak herri oso baten eskubide beteak direla, Espainiako lehen Konstituzioaren mundua aurrekoaz!, eta hauek geuk ahazten baditugu, nola ezagutuko dute espainiar eta frantsesek inork erakutsi ez dietena! Hemen, beste ahaleginen artean, pedagogia berria egin beharra dago: gure herria solidarioa da beste herriekin, baina ez probintziatik, herri osotik at baizik! Bestalde, gure antzinakoen praktikotasuna ez da alferra: lortutakoei eutsi zuhur, estatutu betea, kasu; politika baten arloan, trukea da arau, eta askotan estanpatxoak gurutzatzen baditugu ere, legitimitate demokratikoak, propagandako mezu subliminalak, praktikotasunak muga badu: duintasun minimo bat, eta saldukeriarik ez.